



# Gangoitienagoikoa etxebizitza

Aldaerak:

Ahozkoa: Gángotin goikúe



43° 10' 56"

2° 35' 51"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Andikoa eta Sarria kofradiak banatzen duen *Arrierrekatik* gertu koka-tzen den baserri honen inguruko aipuak eskasak dira, edo hobe esanda kofradiaren goiko auzoan aurkitzen den *Gangutia* (**Ikus Gangutia**) baserrien aipuekin nahastuak ageri dira. Horrela 1704. urteko Bizkaiko su-erroldean *Gangoytia* moduan agertzen zai-gun aipua baserri honekin lotu behar dugu. Hortik aurrera momentu desberdinetan antzerako erak agertzen dira, esate baterako 1840. urtean *Gangoitia* (BAHP, A172/19) edo 1863. urteko *Gangotide* (DJE, 1/ 39 or.). Dena den XX. mendearen bigarren erdialdekoak izango dira argienak. Horrela 1967ko eraikin zentsoan *Gangutiena goicoa* (BUA, CE) aurkitzen dugu metro batzuetara duen *Gangutiena becoa* baserriak bereiztuta. Auzotarren artean *Gángotin goikúe* da forma erabiliena.

Askotan ikusi dugun hiru gorpuzdun baserria da, XVI. mendeko alde zaharragoaz baliatuta beranduago egindakoa, eskuma aldekoaz hain zuzen ere. Aldamenekoak harrizkoak dira, harlangaitzezko hormekin jasoak, eta erdian atarte zabala dauka. Hain da zabala ezen, ordena toskanarreko koloma duela euskarri moduan, 1727ko datarekin. Kantaletan eta solairu honetako leihoetan harlandua erabili zuten. Goiko pisuak, berriz, egurrezko egituraz armatu ziren, tarteko hormak adreiluzkoak izanik eta leihoak, zurezkoak. Ganbara aldea zabalik dago, balkoi bihurtua. Isuri biko teilatua du. Gaur egun guztiz eraberrituta ageri da eta material desberdinen kolore jokia erabili dute etxeari bizitasuna emateko.

toponimia

Izen hau eta Ganguti oso antzekoak badira ere esangura desberdina da kasu honetan goikoa baita bigarren osagaia. Gaur egun goiko edo ganeko erabiltzen baditugu ere antzina goiti eta beiti erabiltzen genituen etxe izen eta deituran ikus daitekeen bezala Bizkaian, behin baino gehiagotan esan dugun legez, ohikoa da etxe izenetan auzoa izena, jatorriz etxe baten izena zena, beste ezaugarri bereizgarri batez lagunduta agertzea. Kasu honetan Gangoiti etxean arteko goikoa da.